

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 'ezagutza-zerbitzuak' Interneten gaiari buruzko konferentzia atlantiko batean hartu du parte

*Bilkura Atlantkis proiektuaren esparruan egin zen enpresa-berrikuntzarako zerbitzuen hornitzaileekin harremanak errazteko*

Viernes, 19 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak Cork-en (Irlanda) ospatu den *Innovating for Successful Business* konferentzian hartu dute parte Enpresen eta Berrikuntzen Zuzendaritza Nagusiaren eta Foru Erkidegoko erakunde- eta enpresa-elkarte eta enpresen bitartez nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bitartez, zeina, [Atlantkis](#) Europako programaren esparruan antolatu den



Cork-en (Irlanda) ospatu zen 'Innovating Successful Business' konferentzian izan ziren parte-hartzaile nafarrak

"ezagutzaren zerbitzu intentsiboen" (EZI) hornitzaileen eta enpresa txiki eta ertainen artean harremanak errazteko.

EZlak zentro teknologikoek eta unibertsitateek informazioaren teknologia berrien, berrikuntzaren eta enpresa-aholkularitzaren alorrean eskainitako zerbitzuak dira. Helburua enpresa txiki eta ertainei laguntzea da horretarako tresna berriak eskainiaz eskualdeetako ekonomietako dinamizatzaile gisa jardun dezaten.

Konferentzian izan zirenek Sareko lan-tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten, teknologia berrietan eta enpresa-kudeaketan adituek zuzenduak, eta sektorearen joerak esperimentatu eta horiei buruz eztabaidatu ahal izan zuten.

Konferentzian Paul Rellis jaunak hartu zuen parte, Microsoft Irlandeko zuzendari kudeatzaileak, zeinak, [cloud computing](#) edo "hodei konputazioan" izandako berrikuntzak aurkeztu zituen; esakune horren bidez, Internet bidezko zerbitzu informatikoen eskaintza izendatzen da, konputazioan adituak ez diren pertsonentzat erabilgarri daudenak eta beren enpresa-beharretara aplikatu ditzaketenak.

Hizlari berak Ezagutzaren Zerbitzu Intentsiboen nazioz haraindiko

plataforma aurkeztu zuen, espazio atlantikoko zerbitzu horien hornitzaileen eta enpresen arteko topagunea izan nahiko lukeena eta zerbitzuak nazioartekotzen eta lankidetzaren sareak sortzen lagunduko duena.

Foru Erkidegoko parte-hartzaileak

[Nafarroako Industriaren Elkartea \(AIN\)](#), [NUP, \(ANEC\) Nafarroako Aholkularitza Enpresen Elkartea](#), [Nafarroako Berrikuntza Agentzia \(ANAIN\)](#), [Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroa \(CEIN\)](#), [Nafarroako IKT Enpresen Elkartea \(ATANA\)](#), [Nafarroako Sare Teknologikoa \(RETECNA\)](#) eta [Fundación Dédalo Fundazioa](#) erakundeetako eta ezagutzaren zerbitzuen hornikuntzara dedikatzen diren hamar enpresa pribatutako kideak ziren.

[Atlantkis proiektuan](#) Europako eremu atlantikoko bost herrialdeetako (Erresuma Batua, Irlanda, Frantzia, Portugal eta Espainia) zortzi eskualdeetako gobernuek eta garapen-agentziek hartzen dute parte. Nafarroako Gobernua da proiektu horretako buru. Konferentzia South & Eastern Regional Assembly-k antolatu zuen, proiektuko beste bazkideetako batek, hain zuzen ere.